

OGEIGARREN MENDEAN. ERREENTERIAKO DANTZA TALDE ETA DANTZA MAIXUAK

XABIER

Erreenteriako edesti edo "Historian" 1.599. garren urtean, azaltzen da nolatan Korpus egunetan egiten ziraden eleiz biretan dantzariak partaide izaten ziradela, eleiz kutsuko dantzak eginez.

Orobat Magdalen jaietan ere "Ijito dantza". Jazkera dantza (Danza de libreas) "Alero dantza" eta "Agai dantza" izeneko orduko dantza ezagunak dantzatzeko ziradela erriaren boskariariko.



1925 Dantzari taldea eta Erreenderiko txistulariak.
A. Lizaso, P. Lizardi, Irineo Rekalde, Martin Goñi (txistu), Marcial Telletxea, J. Mendiburu, I. Juanbeltz, M. Arbelaiz, A. Idiazabal, Jesús Uranga, Asentzio Arretxe, Miguel Mitxelena.
Emilio Telletxea, José Olaskoaga, Regino Taberna, Joakin Azkue (Kapitaina), Alberto Elustondo, José M^o Burillo, Angel Zapirain.

Ikusten dugunez gure erria ez da dantza ertian gaurkoa, urte asko dira nortasun bat ba zeukatela gure antziñako erritarrak eta ogeigarren mende onetan beraien jarraitzalleak nortzuk izan diren azaldu nai nuke idazlan onetan.

Ba dakit nere lantxo onetan utsune batzuek izango dirala bañan saiatu naiz al den ondoena egiten eta ezagutu ditzagun dantza maillan nortzuk izandu ziran gure erriko talde maixuak.

Ogeigarren mende asieran azaltzen zaigu (1971garren urteko Oarso aldizkarian) argazki bat "Comparsa de broquel dantzaris de Rentería" izeneko talde bat eta bertan orduko dantzari ezagunak eta neronek ere geroago ezagutu nituenak., argazki au Iparraldeko Sara errian egiña dago bertako jai egun batean.

Talde au osatzen zuten maixu eta dantzariak auek ziran. Maixu. F^o Salsamendi "Patxiki Aso", dantzariak, Isidro Bengoetxea, kapitaiña, Jose Urigoitia, Juan Maria Urbieta, Antonio Korta, Laureano Etxeberria, Domingo Gabarain, José M^o Otegi, Victoriano Arrieta eta Pedro Maria Olaskoaga dantzari bezela, denbora artan ere maixu bezela Eusebio Guruceaga ibiltzen zan. Txistulariak Jauregi aita semeak eta Mutro atabale-ro. Berauek dira beraz gure errian mende ontako dantzaren au-

rrekoak eta berak izandu ziran dantza maillan gure erriaren ize-na Euskalerra osoan ezagutu arazi zutenak.

Ar ditzagun irudi bezela eta goazen ondorengo urteetan berorien jarraitzaille nortzuk eta nolatan izandu diran.

IRINEO REKALDE IRIGOIEN. (1893-1956)

Egin dezagun urte batzuen aurrerapena eta Patxiku Aso eta Eusebio Guruceagaren ikaskizunak on arturik or azaltzen zaigu maixu bezela (eta ez nolanaiko maixua) urte batzuek dantzari bezela igaro ondoren.

1914go urtea da Irineo bere dantza erakusketarekin asten



1933go Uztailla 14,an Madrilan izan ziraden dantzariak.
Alberto Elustondo, Fermin Salaberria, Iñaki Idiazabal, M. Mugerza, José A. Zamora, Migel Mitxelena.
2.an.- Manolo Arbelaiz, Andoni Idiazabal, Eugenio Roka, Marcial Telletxea (Kapitaiña), J. Mendiburu.
3^o.- Antonio Zabala, Gervasio Inziarte, Manolo Gastesi, Irineo Rekalde (Maixua), Alejandro Salsamendi, Bautista Arretxe.

dala Gipuzkoako dantzak (orduan makil dantza esaten zana) orduko gazte talde bateri erakutsiaz. Talde onen partaide izan ziran dantzarien izenak (ez guztienak) lortu al izan ditut eta izen ezagunak diralarik or dijoazkizue. (1914go urteko taldea). Juan Maria Irigorri, Martin Alberdi, Jacinto Irujo, Valeriano Oroz, Juan Busselo, Severiano Imaz, Salvador Lezeta, Martin Arrieta, Ignacio Etxenike, Ramón Errazkin ta Félix Gastón.

auek ziraden lenengo prestatu zuen taldekoak.

Bere erakusketak Euskalerrian zear zabaldu ziran eta dei asko izan zituan urte aietan bere maixutasuna ondo azalduaz egintzitan ekintza guztietan.

1920garren urtean beste talde bat sortu zuan eta beraien izanak auek dira guztiontzat jakin nai bezela izan ditezen. Ignacio Ganborena (kapitaiña) Luis Ganborena, Joakin Ganborena, Primi Salaberria, Zezilio Paskual, Jaime Urkijo, Rufino Etxenike eta Rafael Iriberrri beste batzuen artean. Batzoki zarreko etxe azpian izaten zituzten beren saioaldiak eta bi talde auek ekintza asko izan zituzten beren talde bezela bizi izan ziraden denboran. Talde auen ekintza artean berezi bat izandu zuten garai artako. 1928. garren urtean Espaiñiako Jaurkaritzako lendakari zan M. Primo de Riverari beren espatarekin zubi bat egin zioten Erreterira Eldotzko ur ekarrearen auskundera etorri zanean. Urte auetan ere San Juan bezperako aurrekulariak ere berak prestatu al izan zituen, eramankizun asko bear izanik ainbat umetxoeri erakusteko.

Urte aietan orduko dantzari aien ordeko izan zitezten 1925 go urtean dantzari gaztetxoeren talde bat antolatu zuen, On-Bide elkarteko makildantzariaren izenarekin, talde onek ekiñaldi asko izan zituen baña bereziena 1933go urtean Madrilan izan zutena.

Orduko Erkal edo Republikako Jaurkaritzako lendakari zan N. Alcalá Zamora eta bertako zan, Plaza de la Armeria deritzan erparantzan.

Ekintza izan leiken oparirik onena zan garai artako Madrilera joan eta amar minutuko saioa egiteagaitik astebeteko egoera izandu zuten oporrik onenak bezela.

Urte aietan Bilbo, Iruña, Donosti eta Iparraldean beren ekintzak ezagunak izandu ziran.

Onela jarraitu zuan Irineok 1936go uda etorri zan arte eta guda amaitu ondoren jarraitu zuban bere seme Iñakiri aulkolari bezela lagun egiñaz.

Bere azken urteak eleizako sakristau bezela igaro zituan eta bertan igarotako gertakizun bat zala medio "El aurrekolari de la Virgen" izeneko idazlan bat azaldu zan 1958go "Oarso aldizkarian Jose Artetxek egiña, bertan idatzirik nolatan Irineok zeruko Amaren Jasokunde egun besperan Eleiz utsarekin eta argiak piztu ondoren aldare nagusian aurrezkuko dantza zatiak eskeintzen zizkion zeruko ama omenduz.

LUIS ARRAUBARRENA BENGOCHEA. (1897-1988). Irineo bezela benbora artako aurrekularia, au ere Patxiku Asoren Ikaslea eta bere ikaskizunak oso ondo ikasiak, garai aietan goi mallako aurrekularia eta bere erakusketak ballara ontan oso ezagunak izanak

Nik entzun dutenez bere garaian Espaiñiko erregiñaren aurrean ere dantzatu omen zuan. 1974go urtean Ondarra Elkarateak eratuta Dantzari zaarrei omenaldi bat egin zitzaion eta bertan partaide zan Luis, ikusi egin bear zan bere 76. urterekin zein sasoiarekin dantzatu zituan aurrezkuko zatiak zumar-diko kiosko gaiñean.

BITTOR IDIAZABAL ESNAOLA. (1909-1985)

1931go urtean Erreteriko batzokian, Bizkaiko Dantza edo Espatadantza talde bat sortzen da Jesús Luisaren zuzendaritzapean eta beronen ikaskizunak jasotzen ditu Bittorek. Talde artako partaideak ziran: Andoni Korta, Ramon Olaizola, Periko Lizardi, J. San Vicente, Sabin Olaskoaga, Bittor, José Iniarde eta Leokadio Kortaberria, Alejandro Lizaso txistulari zutelarik, bertan bildutako ikaskizunak ondo erakutsi zituan eta 1936. urtean ba zituan prestatuak amar talde aurrerantzerako gaiak izan

zitezten bañan guda etorri zan eta asmo on aiek gororako gelditu ziran, guda ondoren ere aulkolari bezela askotan ibilli izan zan

RAMON BASURTO URBIETA

Guda ondorengo berriak ditugu orain Ramon Basurtorekin, San Juan bezperako aureskua berriro prestatu bearra izaten da eta 1941go urtean berriro beronek artzen du erantzupena jai oneri bear dan garrantzia emateko, beronek dantza ikasketak



194(?)?. Iñaki Goñi, Andoni Huarte, Joakin Bengoetxea, Hilario Gaztelumendi Manolo Bengoetxea, Iñaki Maritxalar, Kosme Etxebeguren, Jesús Urkiza.

Donostiako Lorenzo Pujanarekin egin zituan eta 1946go urterarte jarraitu zion erakusketa egiñaz orduko gaztetxoari. Bere erakusketak baliagarriak izan ziran urte aietan ez ba zan aukerarik izaten nai ziraden gauzak egiteko.

IÑAKI REKALDE OLAIZ

Luistarren baskunak dei eginda, ona emen Irineoren seme Iñaki. Bere aita eta Bittor Idaizabalen ikasle izana arduratzen da, lenengo talde Gipuzkoar Dantza eta gero Bizkaitar dantzak erakusteko baskunde onen bazkideen artean.

Talde on bat lortu zuan Gipuzkoako dantza maillean eta Bizkaitar dantzaren artean zortziraiño iritxi izan eta berauen artean dantzari iaoak ireten zuten gero ikusiko degun bezela.

Erakusketa auek beti eramaten zuten Irineoren on iritzia.

Aurrerantz bere lantegiko langilleen artean ere sortu zuan talde bat.

AGUSTIN IRIBERRI OLASAGASTI. (1919-1989)

Berau ere Irineoren eskolako eta gaztetxo zalarik dantzan ikasia, 1942garren urtean bere lengusu Rejino Tabernarekin parte artzen du San Juan Bezperako aureskuan eta 1946garren urtetik aurrera bera arduratzen da lan onetaz gaztetxo eta elduagoeri bertako dantzak erakusten onela jarraiturik 1959garren urteraiño.

1949go urtean "Sagrado Coraño" ikastolako agintariaren deiari erantzunez dantzari talde bat prestatzen du bertako ikaslearen artean Gipuzkoako dantzak beraiei erakutsia eta talde onek bere aurkezpena 1949go Maiatzaren 20an egiten du Zumardiko Kioskoan bere saioa egiñik. Ez zuan talde onek bi-

zitza asko izan 1952. urtean desagertu bai zan, bañan bere ekintzak asko izan ziran bere bizi laburrean.

Talde ontatik ere erakusle askok irten zuten partaide ba ziran X. Gastesi, Arocena, J.L. Aldasoro, Bidegain, Urkizu, Izeta, Alzola, Maritxalar, Otzeta, I. Usabiaga, Ugalde.

Fidel, Mitxelena, Ule, Arellano anaiak, Tomasena eta Aznar, talde berean azaltzen dira.

1980garren urtean eta San Juan bezpera egunean omenaldi errikoi bat egin zitzaion eta bertan aurrenesku, atzenesku eta sokan ziranak bere ikasleak izan ziran naiz urteetan aurrerakoak izan eta era onetan bere lanak erriak eskertuaz.

JOAKIN BENGOETXEA LUJANBIO (1928-1964)

Iñaki Rekaldek osatutako talde baten partaide zan eta talde ura Iñaki Goñi, Andoni Huarte, Hilario Gaztelumendi, Manolo Bengoetxea, Inaki Maritxalar, Kosme Etxabeguren, Jesús Urkiza eta Joakinek osatzen zuten. Iñakiren erakusketari jarraituaz aurrekulari eta dantzari bezela bera ere erakusle bezela prestatzen da eta Alkartasuna Elkartea sortu ondoren dantza talde bat sortzen du bere zuzendaritzapean jai eta erriko festetan parte artu izanik.

Magdalen eta Santiyo eguneko eleiz biretan bai eta ere Arantzazuko Amak Errenderira egin zuan ikustaldian bertan laguntzaille izanik.

Bereziki taldeko batzuekin eta beste lagunarekin 1977.go urtean Iñaki Rekalde lagun dualarik "Orfeon Renteriano" eta Jakintza Eresi taldeekin bat eginda Amaiares espatandantza ikusgaia aurkesten da Magdalen jaien artean.

Erakusle bezela lan asko egingo zuan bere asmoak ala izanik bañan betirako utzi ginduen ez bear batean eriotza arkiturik Deun Jose egunean, Martxoak 19.

XEXILIO GASTESI GALPARSORO

1945go urtean ematen ditu bere lenen dantza pausuak eta 1949garren urtean Patxi Mitxelena atzenezku duelarik ekiten dio bere bizitzan aurrekulari bezela Agustin Iriberrri bere maixu izanik, onela jarraitze du 1959, urtean maixu bezela jarriarik, San Juan go aurrekua berak prestatu al izanik.

Maixu Iriberrigandik Gipuzkoako dantzaren ikaskizunak ere on artzen ditu bertako taldean Kapitaiña bezela parte arturik eta 1958garren urtean Ereintza Elkartea sortzen da eta lenengo erakusketak Aurrekuarenak izaten dira aurrerantz, Gipuzkoako dantzak erakutsiaz, lenengo ikasleak Ikastolako gastetxoak izan du ziran beren artean fruitu asko izanik, era onetan Xexilioren erakusketak oiñ onarekin asiaz.

Beti orrela jarraituaz 1965garren urtean elkarteko Batzordean bat eginda Dantza zaingo bat sortzen du Maria Jesus Uruzola lagun duelarik, lan onetan 1972garren urte arte jarraituaz, eta onela jarraitzalle geiago izanez utzi dantzak.

Berak ala ere urte auetan ez dio bere dantza zaletasunari utzi eta dantza leiaketetan parte artzen du era berean dantzari izanik Oinkari, Izarti eta Goizaldi dantza taldeetan erakutsiaz bere trabetasuna dantza mailla guztietan.

Orain bere griñari jarraituaz dantza leiaketetan epaimaieko izaten da.

EREINTZA DANTZA TALDEA

Naiz 1958garren urtetik dantza erakusketak izan, Ereintza Elkarreak. 1965go urtean Xexilio Gastesik, eta Maria Jesus Uruzola lagun duelarik Dantza Zaingo edo Akademia sortzen dute.

1974an, ikasleak 17 edo 18 urte dituztenean bere askatasunaren jabe egiten dira era onetan eta ondorioan Ereintza dantza taldea sortu al izateko, onela taldeko zati diranak berak dira Akademian erakusketak banatuko dituztenak, izanik azken urte auetan baieztatu egiñaz partaide bakoitza, irakasle izanik talde askotan.

14 urtean taldeak tinko jarraitu du lanean ardurazko aldaketa egitura eta egitarauetan asko izan dira Akademia izan ditun aolkariak eta guztien izenak emen azaltzea luze joango litzake, auek danak Ereintzak bere ogeita bost urte urrenean azaldu zuan aldizkarian azaltzen dira.

1988-1989 Garrantzi askoko garabera sortzen da Ereintza dantza taldearen barruan Udal Dantza Biltoki bat lortzeko asmo deitekenagoa egiten da Maite Egiguren bere nortasun agerierekin saio biltokia joarean jartzen da Euskal Errian aurrendaria izanik mailla onetan eta bertarako Udal etxearen laguntza osoa izanik.

Ereintzak lortu al izan duan biltoki onek bultzada aundia eman dio taldeari eta orain

Euskadin dantza talde gorenetakoen artean arkitzen da.

Orain dantza biltoki ontako aolkariak auek dituzue

Dantza Klasikoa._ Maite Egiguren
Euskal dantzak._ Marian Bravo
Sabin Lasa
Lourdes Esnaola
Angel Maria Elkano

Egindako lanaren fruituak ikusiaz beren egintzak nola izan diran berezi ditzagun.

Autoktono bezela._ Erreterian oitura errikoiak saintzen ditu. - Aurrekua, Magdalen eguneko eleiz birako dantza saioa. San Juan bezperako gau aurrekua, - Aztertu eta xeetasunak eman gure inauterietako ekintza bakarrak, _ Fandango eta Ariñ ariñen ballarako eta Gipuzkoako txapelketak eratu.-

Erri jai Talde bezela._ Euskadiko iri eta erri geienetan dantza saioak izan ditu.

Gogoratzeko ekintzak:

Urria. 83 - 25 urte izeneko jai aldi berezia.

Apirilla 84 - Bretona (Frantzia) Bira

Abustua 84 - Euskadiko ordezkari bezela
Villablino (León) Jaialdia.

Uztaila 86 - Bretonatik Bira

Uztaila 90 - Galizia eta Portugalari bira.

Azaroa 90 - Kataluñan ekintza.

Abendua 90 - E.T.B.1.an Gabon gabeko egitarau berezian.

Apirilla 91 - Lankide izaten da Maite Agirren antzerki taldean "Plancart" antzerkian.

Orain - E.B.T.1 an "Funtzio" izeneko egitarauetan talde iraunkor bezela izaten da sortzen eta dantzatzan zerbaki dantza araudietan.

IRAULTZA DANTZA TALDEA

Talde onen sorrera 1971.garren urtean izaten da eta Nekane Arriaga Ugalde sortzaillea izanik.

Asieran neskatx utsarekin musikalari bat lagun zutela ekin zioten beren lanari andik urte batera mutillak elkar arturik talde nasi bat sorturik aurretantz orrela jarraitzeko.

Bere asmoa euskal dantzak suspertu eta erriari astuta zegozten dantzak berriro azaldu urtero dantza berri bat argitaratu izanik.

Bere elkarte lekua euskerazko ikastaroak eta dantza erakusketak ematen dituzte ballarako jendearen artean (Beraun 5 Bea), ekintza auetako laguntzarik ez daukate eta beren illeroko emaitza eta ekintzetan biltzen duten diruarekin ordaitzen dituzte berak erabiltzen dituzten jatzkera eta berak beren arropa jantziaren egille izanik.

Beren ekintzak Euskalerrian zear oso ezagunak dira ainbat lekutan erri jaietan parte artuak bai dira, orain 40 partaide dira neska mutillen artean, eta eskertzekoa da dantzarien zintzotasuna ikas saioetan beti prest izanik, naiz eta ikas saioak egiteko lekuak ez izan bear dituen aukera onak gai auetarako.

Erriko Magdalen jaietan beren ekinaldiak bezperako eta tar-tean egindako ekintzetan seinalagarriak izan dira ezaugarri berezi bat izanik berak prestatzen dituzten antziñako dantza jantziak agertuaz.

Iraultza taldeak gaur egunean azken mendeko jantziaren bilduma berezi bat dauka argazki eta irudi zarretatik lortua eta bertako partaide dan Ramon Garcia Zabalegi, ren zuzendaritzapea-

rekin lortu dute jantzi auek erriak ezagutu dezala.

Len adierazten genduen bezela iñongo jostunen laguntzarik gabe egindakoak dira jaskera auek eta taldekoen artean guztiak landuta.

Jatzkera auek oso eskatuak izandu dira leku askotan erakusketak egiteko, ezagunenak izanik Donostia, Baiona, Hendaia, Arangoitz, Getari, Donibane Loitzun, Zarautz eta Errenterian egin diranak.

Onurakorra eta aipagarria benetan Iraultza taldea dantzarekin batean egin dituan ikerketak jatzkera auen gainean, lortu izanak era onetan aztuta zegozten jantziaren nortasuna.

Aurrera bada beti Iraultza taldea ekin diozuten lan onekin aurrerantz jarraituaz, zuen lan aipagarri au oso eskertua izango ba da euskaldun guztien artean eta ea bein batez izaten dezuten, ain merezia dezuten laguntza agintarien aldetik. Eta emen nik oldostu nuen idazlan oneri amaiera eman, nik uzte baino geiago luzatua izan zait, bañan ziur nago oraindik ere gai onetan izen eta ekintza gehiago izango dirala, argaitik ona emen bidea ikerlarietzako gai oni buruz lan egin nai badute.

Azkeneko urteetan, Landare Dantza Taldea lanean asia zaigu. Bere eginkizun nagusiena, Aurrekulariaren txapelketaren antolaketa, izanik orain artean; jarraipena emanez onela, duela urte batzuk Ondarra elkarteak asitako lanari.

Eta eskerrik beroenak Luis Olano, Itziar Aierdi, Iñaki Rekalde, Andoni Idiazábal, Manolo Bengoetxea, Xexilio Gastesi, Angel Mari Elkano eta Nekane Arriagarri, zergaitik beren laguntzarik gabe ezerezean geldituko zan nere lan au. Berdin ere Oarso eta Renteria aldiakarietan bildu ditudan xeetasun batzuek Udal Bilduman arkitu al izanak.



1936.go Aberri eguna. Errenderiko Batzokiko euskal Dantza taldeak Fueroen Enparantzan.